



Ana Laura
Aláez
"Resistencia"

Aurreko udan, autoen beiren bilgarri gisa erabilitako kartoizko hainbat kaxa berreskuratu nituen kontainer batetik. Hasieran, maketa bat egin nahi nuen, material eskuragarria erabiliz, erabilera-aztarnekin, erraz garraiatzeko eta pilatzeko modukoa; baina batez ere nahi nuen lagungarria izatea bolumen luzatu handi bat eraiki ahal izateko espazioan, 1:1 benetako eskalan. Helburua zen behar adina aldiz okertzea. Artean ez nekien askoz aurrerago pieza hori hartuko nuela bukaerako pieza gisa. Paretaren kontra trinkotutako bolumen hori tamaina txikiagoko altzairuzko bertsio batekin jarri nahi nuen harremanean.

Lehenengo hiru unitateekin (azken piezan, 9., 10. eta 11. zenbakiak dira), zalantza piztu zitzaidan, benetan merezi al zuen aurrera jarraitzea. Hasieran pentsatu nuen, gutxieneko lodiera izango zutenez, kautxuzko itxura malgua edukiko zutela. Neure ezintasunak ikusita mendekua hartu behar dudanean, tratu txarra eman behar diot une zehatz horretan "eskulturatzat" hartzen dudan horri. Horretarako, aurre egiten diot langai dudan zera horri. Ez dakit kontua den nire aurrean zutitzen den hiru dimentsioko masa beheratzea besterik gabe, edo, hori baino gehiago, ez ote den nire burua umiliatzea ezin susmatuzko mugetaraino. Edo bi kontuak batera. Gainazalean agertzen den egitate estetikoak barruan zartatzen zaidan zerbait konpontzea lortuko ez balu bezala. Errealitate sinbolikoaren eta errealitate fisikoaren arteko hiltzerainoko pulsu horrek katarsia sortzen du. Sarritan, oinarrizko galdera berberak sortzen zaizkit, emaitza oraindik ikusteke duen apustu horren aurrean. Arrazoi okerrak al dira hor irauteko adierazten dutenak? Zein unetan utzi nuen bazter lehenengo ideia? Eskulturak "aski da" esaten dizun unean iristen denean, aurrera egiteko modu bat al da atzera egitea?

Material iragankor hori zokoratu aurretik, ekintza baten euskarri gisa erabiltzea pentsatu nuen: osagabeko eskultura horren eramailea izango litzateke subjektua. Eskultura airean astindu beharko litzateke, haren lerro zuzenak itxuragabetu. Proba batzuk egin nituen neure buruarekin, eta, gero, beste irudi batzuk bota nituen nire ohiko lankideetako batekin. Piezari heltzeko moduz zalantzak sortzen zirenean eta, batez ere, kanpoko masari eta gorputz-hizkuntzari lotutako

oinarrizko auziak azaltzen zirenean, urrutitik oihu egin behar izan nuen argibideak emateko. Hitz solteak erabiltzen nituen gidoi modura, kode sekretu bat balitz bezala. Nire ibilbideko beste fotografia batzuen titulua ziren, eta horietan konplize hau bera agertzen zen. Irudi horiek guztiek denboran barne-osotasun bat eratuko balute eta, aldi berean, lagungarri izango balira bezala espazioa okupatzeko mugimenduak aipatzeko. Keinu sotilak aipatuz, esperientziak partekatuz baizik ezin uler daitezkeenak, eta fotografiak entitateak baitira berez, bakoitzak bere autonomiarekin: "Bizefaloak!"; "Egilearen sinadura!"; "Pony girl performance!" ... Eta beste enuntziatu asko, oraindik errepresentaziorik ez dutenak, baina lema inplizitu gisa ulertzen ditugunak. Hor, ohartzen zara zenbat obra ezkutu dauden egiteko, oihartzun metaliko, magiko horrekin -hori esaten ere ausartuko naiz-. Jauziak espazioan eta forman: Santa Teresa Jesusenarengandik David Bowierengana. Partekatzen dugun imaginariokoak diren arkanos esoterikoak. Mistika desberdin bat.

Horren emaitza profanazio piktoriko moduko zerbait izan zen, estandarte bat, barnealdean, itxuraz, zuhaitz batzuk zituena kaligrafia zehatzez pintatuta. Paisaia bat beste baten barruan, kartoizko prisma batzuek zedarriritua. Itxuren kanonaren kontra egindako sabotajeko maniobra. Paisaia bilakatzen ari den emakumearen figura bertikal horren atzean, edo gorputz bihurtzen ari den azal koloreko lur horren atzean, gogoetak daude zelatan, bananduta igerian.

Gogoetak, hala nola premoldeak, moldeak, transmoldeak edo supramoldeak; maskara eta natura; dandy-langile abitua; esperientzia epifanikoa; apropiazioa; adeigabetasun ikonoklasta; izu primarioa; irudi bilakatzen diren gutxieneko kontzeptuak; hizkuntza sinbolikoa; obra bakoitzari denbora mugagabea eskaintzea; jatorrizko androginoa; arrazoia eta arima; eta abar..

Alabaina, zalantzarik gabe, "erresistentzia" beti agertzen da nabariago guztien artean.